






DEIALDIA

Proiektuak Uharteko kolektiboekin batera

2018



||
Huarte

H



deialdiaren helburua da artisten eta Uharteko kolektiboen arteko elkarlanak garatzea, elkarrengandik ikasteko loturak ezartze aldera, herritarrendako kontu interesgarriak jorratuta arte garaikidearen bitartez.

Uharte Zentroak deialdi hau abiarazi du Uharteko jendearekiko harreman espazioak ezartzeko, herritarren zerbitzuan jarritako arte-prozesu garaikideak sortuta.

Deialdiaren oinarrian sare lana dago, prozesu parte-hartzaileen bidez ekinez, ezagutzak eraikitzeke agertoki gisa eta, horren ondorioz, kultura sortzeko.

HELBURUAK

- Proiektu artistikoak egitea, Uharte Zentroak bere ingurunerik hurbilenarekin duen harremana birplanteatzeko.
- Sarean aurre egitea komunitatearen berezko erronkei edo proposamenei.
- Artea sortzeko estrategiak gizarte prozesuetan erabiltzea.
- Uharteko jendea sorkuntza garaikideko prozesuetan engaiatzea.

ZER ESKAINTZEN DA?

Uharte Zentroak 2000€ bideratuko ditu deialdira, artistendako ordainsari gisa, eta diru hori gehienez hiru proiekturen artean banatuko da urtero.

Era berean, proiektu aukeratuek ekoizpen zentroko instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera izanen dute.

Proiektua 2018ko martxotik abendura bitarte garatu beharko da.

Uharte Zentroak bere proposamenarekin bat datozen eta ekarpenak egin ditzaketen kolektiboak eta artistak hautatuko ditu, betiere arte garaikidearekin lotutako planteamenduak oinarri harturik.

Laguntza hau bateragarria da proiektu berberak jaso ditzakeen beste batzuekin.

NORENTZAT

Uharten eta bertako jendearentzat lan egiten duen talde ororentzat; bere lana arte garaikidearekin lotu nahi duen taldearentzat, hain zuzen.

Hainbat talde proiektu berean aurkezten ahalko dira.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Proiektu bakoitzak koordinatzaile bat izendatuko du. Eskabideak online galdetegiaren bidez egingen dira, www.centrohuarte.es webean.

- Koordinatzailearen izena eta kontaktua.
- Taldearen izena, helburu nagusiak eta datuak.
- Proposamena: hasierako ideia, aztergaiak, herritarrekiko lotura, zer arrazoi proposatzen diren arte garaikidearen bidez lantzeko (5.000 karaktere, gehienez).

Deialdia 2018ko otsailaren 28an itxiko da, 23:59ean. Martxoaren 3an proiektu irabazlea edo irabazleak argitaratuko da/dira Uharte Zentroaren webgunean, eta proiektu horren/horien koordinatzailearengana joko dugu.

Urtarrilaren 25ean, osteguna, 19:00etan, saio irekia egingen da Uharte Zentroan talde interesatuentzat, zalantzak argitzeko (halakorik bada) eta proiektuak orientatzeko.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Proiektua bat ote datorren deialdian proposatutako ildoekin (10 puntu, gehienez).
- Taldearen presentzia maila Uharteko herritarren bizitzan (5 puntu, gehienez).
- Proposamenak Uhartan duen eragina. (5 puntu, gehienez).
- Herriko beste kolektibo edo talde batzuek proiektuan duten partaidetza eta inplikazioa (5 puntu,gehienez).
- Irizpideak, eta autoebaluazio nahiz ebaluazio prozesua (5 puntu, gehienez).

AUKERAKETA BATZORDEA

Proiektuak batzorde batek aukeratuko ditu:

- Oihane Uribeetxebarria Garmendia. Uharteko Udaleko kultur teknikaria
- Uharteko Udaleko kultur koordinakundeko kide bat
- Betisa San Millán, Uharte Zentroko zuzendaria

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetan aurkeztearekin bat, proiektuaren arduradunek hainbat konpromiso onartuko dituzte, proiektua aukeratzen bada. Hona hemen konpromisoak:

- Lan talde bat edo taldearen arduradun batzuk izendatzea, proiektua bideragarria izan dadin.
- Aurkezten den proiektua gauzatzea
- Hitzartzen diren lan saioak, egutegia eta ordutegiak errespetatzea.
- Proiektuak izan ditzakeen ekoizpen kostuak bere gain hartzea
- Proiektuaren azken txostena egitea, beranduenez 2018ko abenduan egin beharko dena.

Uharte Zentroak konpromiso hauek hartuko ditu:

- Proiektua gauzatzeko egokienak diren artistak aukeratzea, eta haiekin aldez aurretik hitz egitea.
- Artistei dagozkien ordainsariak ordaintzea.
- Proiektuaren jarraipena egiteko bilerak egitea proiektuaren arduradunekin, hirutik seira.
- Zentroko espazioak eta baliabideak proiektuaren eskura jartzea.
- Hedapen lana egitea bai hedabideetan bai Uharte Zentroko sare sozialetan, kolektiboekin koordinatuta.

OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek oinarriok onartzen dituzte deialdian aurkezten hutsarekin.

|| \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ || \